Ikastaroaren fitxa

2. HE: birziklatze ikastaroa (2026/60/15/3)

1 INFORMAZIO OROKORRA

- **Hizkuntza Prestakuntza arloa**
- **Modalitatea** Aurrez aurrekoa
- **Hizkuntza** Euskara
- **Iraupena** 20 ordu
- **Ikasle kopurua** 15
- **Hartzaileak** 2. HE (B2B2 maila) egiaztatuta duten EAEko herri-administrazioetako langileak.
- **Irakaslea** Instituto Labayru Ikastegia

Egutegia

1. **Administrazio Orokorra**
   - **Izena emateko epea:** 2026ko urtarrilaren 2tik 19ra
   - **Oniritzi epea:** 2026ko urtarrilaren 20tik 23ra

   Beste administrazio batzuk
   - **Izena emateko epea:** 2026ko urtarrilaren 2tik 23ra
2. **Ikastaroaren egunak:** 10 egun
   2026ko otsailaren 2, 4, 9, 11, 16, 18, 23 eta 25a
   2026ko martxoaren 2 eta 4a
3. **Lekua**
   Lakua Ieko sotoko 28. gela. Donostia-San Sebastián kalea 1. 01010 Vitoria-Gasteiz.
4. **Ordutegia**
   09:00-11:00
5. **Baja emateko azken eguna**
   2026ko urtarrilaren 30a

- **Dagokion administrazioak ordaindu beharreko matrikularen prezioa** 195,30 €

AGINDUA, 2022ko ekainaren 20koa, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak ematen dituen jarduera eta zerbitzuen prezio publikoen diru-zenbatekoa ezartzen duena (uztailaren 8ko EHAA, 132. zk.).

2 HELBURUAK

Helburu orokorrak

Langileek denboraren joanean hizkuntza ez erabiltzeagatik galdu duten maila berreskuratzea eta hizkuntza erabiltzeko beldurrak uxatzen laguntzea.

Helburu espezifikoak

- Laguntza eskaintzea hizkuntza zuzen eta egoki erabiltzeko eguneroko jardunean.
- Langileei baliabideak ematea euskara eguneroko lanean erabil dezaten.
- Erregistro formala eta informala bereizten eta ongi erabiltzen ikastea.
- Telefonoz zein aurrez aurre, harrera egiteko eta kontsultak bideratzeko gai izatea.

Konpetentziak

Ikasleak prestakuntza-ekintza amaitzean jakingo du:

- Zuzenago idazten eta hitz egiten.
- Lexiko zuzenagoa erabiltzen.
- Irakurgaiak eta entzungaiak, oro har, hobeto ulertzen.

3 PROGRAMA

PROGRAMA

Gramatika

- Euskaltzaindiaren arauak.
- Zalantza gramatikalak.
- Zuzentasuna (kalko okerrak, deklinabidea, etab.).
- Aditzak.
- Puntuazioa.
- Ortografia.

Lexikoa

Hiztegi batua.

Idazmena

Testu egokiak eta argiak idazteko baliabideak.

Mintzamena

Elkarrizketak, azalpenak eta laneko telefonozko hizketaldiak.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITAL ETA AUTOGOBERNU SAILA

Irakurmena eta entzumena

Lagunarteko solasaldiak, telefonozko elkarrizketak, albisteak, kronikak eta laneko azalpenak.

Ikastaroaren planteamendua B2 mailako ikuspuntu orokorretik bideratuta badago ere, administrazioko jardunarekin zerikusia duten idazkiak, gaiak edota ariketak txertatu eta landuko dira.

METODOLOGIA

Teoria eta praktika uztartuko dira ikastaroan, nahiz eta alde praktikoak lehentasuna izango duen.

4 EBALUAZIOA

Ebaluazioa

Ikastaroan betetako eginkizunak hartuko dira kontuan GAI kalifikazioa lortu ahal izateko.

Aprobetxamendua

- Bertaratzea, gutxienez, % 80koa izatea, ikastaroaren ordu kopurua kontuan hartuta.
- Proposatzen diren ariketa guztiak egitea eta gainditzea.

Ikastaroaren balorazioa

- Ikasleek asebetetze inkesta beteko dute.
- Irakasleek balorazio inkesta osatuko dute.

5 OHARRAK

Baldintzak

Beharrezkoa da posta elektronikoko kontu korporatibo bat izatea ikastaroa egingo duen pertsona identifikatzeko.

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren (DBEO) 5.1 d) artikuluan xedatutakoaren arabera, datu pertsonalak zehatzak izango dira, eta, behar izanez gero, eguneratuak. Hori guztia zehaztasun-printzipioa betetzeko.

Harremanetarako

ikasivap@ivap.eus

Ziurtagiri digitala

Ikastaroaren aprobetxamendu-ziurtagiria eskuragarri egongo da posta elektronikoan jakinarazpena jasotakoan, *IVAPekiko izapideak* / *Ziurtatzeak* atalean sartuta.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITAL ETA AUTOGOBERNU SAILA